

Modak uste baino gehiago kutsatzen du.mp3

Kazetaria: Arratsalde on, lagunok! Zer moduz? Ongi etorri asteroko *Eko-txoko* saiora.

Kazetaria: Gaurko saioan, modaren industriari buruz arituko gara. Irakurri dugun albiste batek guztiz harrিতuta utzi gaitu. Antza denez, modaren industria munduko karbono-emisioen % 10aren erantzulea da.

Astero bezala, gurekin da Ane Iriberrri, eta berak azalduko digu hobeto hau guztia.

Arratsalde on, Ane!

Ane: Arratsalde on guztioi.

Kazetaria: Esan dugun bezala, datu hori irakurri dugunean, harrিতuta gelditu gara; ez genekien modaren industriak hainbeste kutsatzen zuenik, Ane.

Ane: Bai, bai, hala da. Datu hori, hain zuzen ere, Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konferentziak emandakoa da. Eman dituzten datuen arabera, modaren industria munduko karbono-emisioen % 10aren erantzulea da edo, beste modu batean esanda, munduko bigarren kutsatzailea da.

Kazetaria: Zer esan nahi du horrek, zehazki?

Ane: Bada, nazioarteko hegaldiek eta itsas garraioak batera baino gehiago kutsatzen duela modaren industriak, eta horrek eragin zuzena duela klima-aldaketan eta berotze globalean. Adibidez, datuekin jarraituz, galtza bakero batzuk ekoizteko, 7.500 litro ur behar dira, hots, pertsona batek zazpi urtean edaten duen kopuruaren baliokidea.

Kazetaria: Baina hori izugarria da!

Ane: Bai, izugarria da, eta oso informazio gutxi ematen da horren inguruan. Modaren sektoreak urtean 93.000 milioi metro kubiko ur erabiltzen ditu; bost milioi pertsonaren beharrak asetzeko kopurua. Gainera, urtero milioi erdi tona mikro-zuntz isurtzen dira itsasora, hau da, hiru milioi petrolio-upel.

Horren guztiaren erantzukizuna, hein handi batean, moda azkarraren edo *fast fashion* ereduarena da. Eredu horrek jantziak prezio baxuetan erosi eta etengabe aldatzeko aukera ematen die kontsumitzaileei, eta arropa sarri erosi eta botatzeko adorea.

Kazetaria: Egia da horrelako dendetan arropa merke eta erraz erosteko aukera egoten dela.

Ane: Bai. Estatu espainiarrean egindako inkesta baten arabera, pertsona bakoitzak, batez beste, 34 jantzi kontsumitzen ditu urtean, eta 12-14 kilo arropa botatzen ditu aldi berean.

Kazetaria: Eta zer gertatzen da arropa horrekin guztiarekin?

Ane: Arropa gehiena bigarren eskuko merkatuan saltzen da, baina, urtebetean, pertsona bakoitzeko 1,5 edo 2,5 kilo arropak zabortegian amaitzen du zuzenean, eta % 20 baino ezin da birziklatu.

Kazetaria: Eta horrek guztiak nola eragiten du ingurumenean?

Ane: Bada, horrek arrisku ekologiko bikoitza sortzen du; alde batetik, alferrikako hiperkontsumoa bultzatzen duten ohitura desagokiak sortzen dituelako eta, bestetik, arropa merkea gero eta kalitate okerragoko lehengaiekin egiten delako. Horrek zaildu edo eragotzi egiten du arropa birziklatzea, eta, ondorioz, ingurumena gero eta kutsatuago dago ekoizten den eta botatzen den arroparen eraginez.

Kazetaria: Mila esker, Ane, astero bezala *Eko-txokora* etortzeagatik eta ingurumen-arazoei buruzko azalpenak emateagatik. Datorren astera arte.

Ane: Eskerrak zuei. Laster arte. Agur.